

ENSEIUKARREAN ALDIZKARIA

Juan Otaegi

SORRERA

BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAtik jaso baitugu gonbitea Enseiukarrean aldizkaria noiz eta nola sortu zen esan dezagun, bai eta zer asmo dituen ager dezagun; hona bada, orain artean egindako bidearen berri, haren urratsak ondo samarretik jarraitu ditudan honek emana.

1985-1986ko ikasturtea abiatu zen bezain laster, Deustuko Unibertsitateko EKM (Euskal Kultur Mintegia) taldeak deiturik, fakultate ezberdinetako ikasle saila bildu zen arduradunarekin bat, urte barruan zer kultur ekintza asmo gauza zitekeen ikusteko.

Bilera horretan -urriaren barruan egina bera- sortu zen galdera, ea aldizkariaren bat argitara zitekeen euskaraz EKMren eskutik. Lehen kolpetik, besterik gabe, baietzak edo ezetzak ez baitzuen balio, eta, bestalde ideia indartsu baitzeterren, hobe zela asmoari gorputza eman eta gero Unibertsitateko Errektoreari aurkeztea eta, hala, talde batek asmoa letratan jartzeari ekin zion; taldea bera ere asmo horren zehazte lanetan gorputza hartzen joan zelarik.

Ikasle taldeak gauzatu zuen egitasmoa laburki eta argiro adierazia geratu zen, bi puntu nagusitan zehaztua: bata, Euskal Kultur Mintegiak, hau da, Deustuko Unibertsitateko ikasleen kultura ekintza zenbait bideratzeko zen Unibertsitate barruko erakundeak argitaratuko zuela, Enseiukarrean izendatuko zen aldizkaria; bigarrena, helburua honako hau izango zuela, alegia, «euskararen kultura» gaindituz, be-

netako euskal kultura lantzea, Unibertsitate mailako jakintzabide guztiak jorratuz (literatura, antropologia, filosofia, teologia, psikologia, soziologia, ...) eta Deustuko Unibertsitateko ikasle nahiz irakasleak parte hartzera deituz. Honez gainera, zuzendaritza taldea ere aurkeztu zuen, guztia ikaslez osatua.

Errektorearekin behin eta berriz zehaztua eta orraztua izan zen proiektu hori. Eta haren borondatez Batzorde Kontseilaria sartu zen proiektuaren barruan, irakaslez osatua, eginkizun hau zuela: aldizkariari zegokion mailari eustea lanei buruzko iritziak agertuz. Bestalde, zuzendaritza bi urtetarako izendatua izango zen, eta Deustuko Unibertsitateko zen bitartean bakarrik izan zitekeen zuzendaritzako kide. 1986ko urtarrilaren 15ean sinatu zuen Errektoreak, Dionisio Aranzadik, proiektua eta izendapenen testua.

Gauzatzea ilusio handiz bildutako ikasle talde baten fruitua da Enseiukarrean aldizkaria eta ez ilusio gutxiagoz Dionisio Aranzadi Errektore ohiak eta gaur egungo Errektoreordeak onartu eta babestua. Ekonomi sustapena urtean-urtean gauzatuko zen aurrekontuen bidez, zeinak Errektoreak edo Euskararako Errektoreordeak onartuko zituen. Lehen zuzendaritza taldean nahiz baziren Euskal Filologia, Ingeles Filologia, Hispaniar Filologia, Informatika, Zuzenbidea, Soziologia etabar sailletako, gehienbat Euskal Filologia eta Ingeles Filologiako ziren. Zuzendaria bera Ingeles Filologiakoa zen: Migel Angel Elkorobezibar.

Lehen talde honek hiru urtetan egin zuen lan eta lau zenbaki argitaratu zituen eta bi monografiko. Lanak ia erabat literatura eta linguitikari zegozkion. Idazleak, irakasle batzuk kenduz gero, ia denak ikasleak ziren. Argitalpenaren ardura ez zuen Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Departamenduak berak hartzen, zuzendari taldeak baizik. Beraz, artikuluak egin eta bilduaz gainera, edizioaz ere arduratzen zen zuzendaritza.

Bigarren epealdia. Ikasle taldeak ikasketak egin bitartean irauten baitute gehienbat Unibertsitatean, bost urtez bost urte belaunaldi berriak agertzen dira lehengoak joanaz batera. Hori zela bide, 1988-1989garren urtetan Enseiukarrean aldizkariaren proiektua berpentsatu beharrean aurkitu ginen. Lehen taldeak berak eman zion abiabidea gogoe-ta horri. Eta Errektore, EKM-ko arduradun eta talde berriak gauzatu zuten proiektuaren berriztapen hori. Aldizkaria ikasle belaunaldien joan-etorri hutsaren esku uztea, egoera ahulean uztea zela pentsatu zen, eta Unibertsitatean txertatuago egon zedin eman ziren aurrera

pausoak.

Hona eman ziren bermatze urrats oinarrikoak:

-Aurrerantzean Enseiukarren aldizkaria Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Departamentuak emango du argitara.

-Aldizkariaren gidaritzak ikasle eta irakasle talde batek eramango du aurrera.

-Zuzendaritza bikoitza izango da: irakasle bat eta ikasle bat.

-Gidaritza taldea Euskararako Errektoreordeak izendatua izango da.

Bittor Uranga irakaslea, eta Ana Isabel Morales eta Igone Menika ikasleak (kasu honetan bi) izan ziren zuzendaritzarako izendatuak.

Bigarren epealdi honetan proiektuaren diseinua sendotu eta finkatua geratu zen, argitalpen moldea bikaindua, ikasle-irakasle arteko lana sendotua, Unibertsitate barruko eta kanpoko idazleen arteko harremana gauzatu. Talde berriaren gidaritzapean hiru zenbaki argitaratu ziren 1990, 1991, 1992 urteetan -hain zuzen bost, sei eta zazpigarren zenbakiak-, eta segimenerako hainbat material biribildu. Aldizkariaren arduraz gainera bi ekintza nagusitan hartu zuen parte talde honek, hain zuzen, aldizkarirako argitalpengai ugari sortuko zen bi ekintzatan. «Gaurgi»ren barruan euskal poeta berriez antolatu zen seminarioan, Enseiukarren seigarren zenbakirako gaia osatuko zuena eta hizkuntzalaritzaz eratu zen mahainguruaren antolakuntzan, gero zortzigarren zenbakirako hainbat gai interesgarri eskainiko zuena.

Bigarren talde honek ere, aldizkaria Deustuko Unibertsitatean txertatze aldetik pauso berri bat eman nahi izan zuen Enseiukarren egitura sendoago batean kokatua gera zedin. Hala, EKM-ren argitalpen bezala abiatu zena Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutuan txertatua geratu zen. Eta Unibertsitatean erabiltzen diren jakintza guztietara zabaldua zena filologiaren lantzen diren hizkuntzalaritza eta literaturara mugatua zedin nahi izan zen. Bai eta taldearen gogoeta umotu hori proiektuaren berriztapenean arautu ere egin zen. Eta horrez gero, aipatu bideari jarraitzen zaio taldea.

1992ko ekainaren 15ean izendatuak izan ziren Juan Otaegi irakaslea eta Nerea Zuloaga ikaslea hirugarren epealdiko zuzendaritzarako. Filologiako bi adarretara mugaturik, hau da, hizkuntzalaritza eta litera-

turara emanik datoz 1992an eta 1993an argitaratu diren bi zenbakiak, hain zuzen, 8 eta 9garrenak. Azken bi hauek eta aurreko taldeak argitaratu zuen zazpigarren zenbakia gainerantzekoak baino hainbatez hornituagoak datoz edukiz eta lanen trinkotasunez. Hirugarren talde hau hurrengo zenbakia prestatzen ari da orain, hau da, hamargarren zenbakia.

Zuzendaritza eta erredakzio talde bakoitzak badu aldizkaria gauzatzeez gainera, aldizkariaren beraren beharrianaz eta izan beharko lukeenaz egiten duen gogoeta. Hirugarren talde honek oso gogoan izan du ikasle belaunaldi berriak parte hartzera deitu nahia. Hainbat aldetatik begiraturaz gero aldizkari nahiko egina ageri dena, edo forma aldetik nahiko gauzaturaz, zerbait urruneko iruditzen zaie belaunaldi berriei. Arrisku hori jokoan dago edozeinetara ere, jadanik bide luxexka egina duen aldizkari honen kasuan. Ihesik ezin egin zaion arazoa izango du beti ere aldizkari honek, behar duen duintasun maila eta sakontasuna lortzea eta, aldi berean, belaunaldi berriei zabalik dagoelarik hauen lanen erakusleku izatea. Ikasle eta irakasleen arteko orekari eustea, belaunaldi heldu eta belaunaldi berrien arteko joko aberasgarriari bide ematea, idazle berrien ernabide izan eta arituagoen plaza bihurtzea, horra eskutan dugun proiektua. Kasu honetan nigana iritsi baita aurkezpen hau egiteko eskaria, eta laister baten egiteko, nik irakasle zuzendarikide naizen honek egin dut azalpen hau. Baina zenbaki bakoitzean editoriala, esaterako, ikasle zuzendarikideak egin du orain arteko kasu guztietan.

Izena nondik datorkion jakin nahi bada -irakurle arituak ondotoxo badaki ere-, Axularren Gero-tik hartua dela esan dezagun. Liburuaren hasieran irakurleari zuzentzen dio hitza eta bertan aitortzen du bere lana «enseiucarrean» egina duela. Enseiui modura, alegia. Eta hala egingdako lanek hutsik badute ere, barkakizun dutela, dio Axularrek.